

## **Lan-eskaintza publikoa: eraikin publikoetako mantentze-lanen arduraduna**

### **1.- ZEIN BALDINTZA bete behar ditut eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradunen hautapen-prozesuan parte hartu ahal izateko?**

- Zu, zure ezkontidea edo zure seme-alabak EBeko herritarrak izatea; edo egiaztatzea EBak langileen zirkulazio askeari buruz egindako eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan zaudela.
- Hamasei (16) urte beteta izatea, eta derrigorrezko gehieneko erretiro-adina ez gainditzea.
- Eskola-ziurtagiriaren edo horren baliokidearen akademia-titulu ofiziala edukitzea (atzerriko titulua izanez gero, konbalidatuta eta homologatuta egon beharko du).
- Euskararen B2 edo goragoko mailaren titulu edo ziurtagiria edukitzea; edo deialdian maila hori egiaztatzeko deitutako proba gainditzea —derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna duten sei (6) plazen kasuan—.
- Deialdiaren oinarri orokor eta espezifikotan ezarritako gainerako baldintzak betetzea (oinarri orokorrak 2019/06/11ko BAO-n argitaratu ziren, eta espezifikoak, berriz, 2021/05/28koan).

### **2.- NOIZ aurkeztu behar dut eskabidea eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradunen hautapen-prozesuan parte hartzeko?**

Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean (EAO) argitaratzen den dataren hurrengo egun baliodunean (hau da, larunbat eta igandeak zenbatu gabe). Une horretatik aurrera, eta, gehienez ere, 20 egun balioduneko epean, udal webgunean eskabidea telematikoki egiteko aukera egongo da.

### **3.- ZELAN aurkeztu behar dut eskabidea eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradunen hautapen-prozesuan parte hartzeko?**

Internet bidez egin behar duzu, egoitza elektronikoan (<https://egoitzaelektronikoa.basauri.eus>) egongo den eskabidea beteta.

Internetera konektatzeko baliabiderik ez baduzu, Udalak hornituko dizkizu: eskabidea izapidetzeko beharrezko baliabide informatikoak egongo dira Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.

Era berean, eskabidea aurkeztu ahalko duzu Basauriko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan; edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 1 Legearen 39/2015. artikuluan aurreikusitako edozein modutan bidali ahalko duzu Udalera. Posta bulegoetan aurkeztutako eskabideak gutun-azal irekian joan behako dute, postako funtzionarioek data eta zigilua jarri ahal izateko, ziurtatu aurretik.

Ezin da eskabiderik ez erreklamaziorik aurkeztu posta elektroniko bidez: administrazio-prozeduran ez da onartzen horrelakorik.

### **4.- Zein informazio eman behar dut eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradunen hautapen-prozesuan parte hartzeko eskabide telematikoa?**

Mesedez, jarri arreta, bereziki, eskatutako informazioa betetzeari, sistemak ez baitu aukerarik ematen gerora zuzenketak egiteko.

- Datu pertsonalak: NANA (letra eta guzti), izen-abizenak (3 hitz, NANean agertzen diren datu ofizialekin bat etorri behar dute), helbidea (kalea, zenbakia, posta-kodea, udalerrria eta probintzia), telefono-zenbakia, helbide elektronikoa eta jaiotze-data.
- Deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betetzeari buruzko aitorpena. Bestek beste, eskola-graduatuaren edo horren baliokidearen titulazio akademiko ofiziala edukitzeari buruzkoa (atzeritarren kasuan, gainera, homologatua) —zeina hautapen-prozesuan egiaztatuko baita, dagokionean—.
- Oposizio-aldiko hautaprobak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzun: euskaraz ala gaztelaniaz.
- Azterketa-egunerako behar dituzun egokitzapenak (aitortutako desgaitasunik baduzu).
- Dagoeneko egiaztatuta daukazu hizkuntza-eskakizuna, Eta berariazko baimena IVAPek informazioa hizkuntza-eskakizunen erregistroan kontsultatzeko eta Basauriko Udalari jakinarazteko.
- Hirugarren proba (euskarako B2 maila egiaztatzeko azterketa) egiteko eskabidea.
- Basauriko Udalari baimen espresua ematea NANA, ikasketa-titulu ofizialak eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dauden euskara-tituluak egiaztatzeko.
- Baimen espresua, sortuko diren lan-poltsak eskatzen dituzten beste administrazio publikoei datuak lagatzeko.

Izena emateko prozesua amaitzen duzunean, sistemak automatikoki jakinaraziko dizu zure eskabidea behar bezala izapidetu dela.

## **5.- ZEIN HIZKUNTZA-ESKAKIZUN egiaztatu behar dut hautapen-prozesuan zehar, eta zelan egiten da hori?**

**Euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna** (B2 maila) egiaztatuta izan, eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen diren izangaiek ez dute ziurtagiria aurkeztu beharko, baldin eta eskabidean Basauriko Udalari baimen espresua ematen badiote hori egiaztatzeko.

Baimen hori ematen ez dutenek, edo hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeari eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa da dekretu hori), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, euskarako proba egiteko data baino lehen.

Gainerakoek euskarako azterketa egin beharko dute. Azterketa hori IVAPen deialdi bateratuen sistemaren arabera planifikatu, antolatu eta garatuko da.

Euskarako B2 maila egiaztatzen ez dutenek, derrigorrezkoa ez den hizkuntza-eskakizuna duen plaza bakarrik eskuratu ahalko dute.

## **6.- ZER-NOLAKO PROBAK gainditu beharko ditut eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradunen hautapen-prozesuan?**

*Lehen ariketa (derrigorrezkoa eta baztertzalea) A) atala:* gai-zerrendako zati orokor eta espezifikoaren edukiei buruzko erantzun anitzeko galderen sorta. Txarto erantzundako galderak puntuak kenduko dituzte. 0-10 puntu bitartean lortu ahalko dira.

*Lehen ariketa (derrigorrezkoa eta baztertzalea) B) atala:* gai-zerrendaren zati espezifikoko gaiei buruzko kasu teoriko-praktikoak ebazteari buruzko erantzun anitzeko galderen sorta. Txarto erantzundako galderak puntuak kenduko dituzte. 0-20 puntu bitartean lortu ahalko dira.

*Bigarren ariketa (derrigorrezkoa eta baztertzalea):* lanpostuaren berezko eginkizunei lotutako kasu praktikoak ebaztea. Gehienez ere, 20 puntu lortu ahalko dira.

*Hirugarren ariketa. 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba.* Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa den plazetan (6), ariketa horretan gai/ez gai kalifikazioa lortuko dute izangaiek. Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez den plazan, berriz, euskaraz jakitea merezimendua izango da: gehienez ere, 5 puntu lortu ahalko dira.

## **7.- NON LOR DEZAKET INFORMAZIOA eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradunen hautapen-prozesuari buruz?**

Hautapen-prozesuaren gaineko informazio osoa argitaratuko da udal webgunean, lan-  
eskaintza publikoen atalean: <http://www.basauri.net/es/node/106>.

Bestalde, Giza Baliabide Arloan zalantzak argituko dizkizute, telefonoz (944.666.362)  
zein posta elektronikoz ([recursos\\_humanos@basauri.eus](mailto:recursos_humanos@basauri.eus)).